

1965-ko Maiatzaren lenengoan

“...Zuengan ikusten da garbi asko, gizonak totalitarismo guztien kontra, eskubide ta deretxo osoz eskatzen duan nezesidade hain beharrezko hori, ots: libreki pentsatzekoa ta libreki adierazi ahal izatekoa. Hauxe da, dudik gabe, azkeneko garai haue-tan Iortu dugunetarik ho-beena. Ta Eleiza da noski —ondotxo dakizutenez— zuekin biotzez lenengo poz-tutzen dana; eraberean, pentsatzeko libertadea ta Prensako askatasuna biak, —libertadea diogu ta ez libertinajea gero— Eleizak berak zuekin bat egifilik nahi ditu, erri guzientzat errealidade ta bakoitzaren deretxo izatera heldu ditezen, ta norberak, edozein lurraldetan, buruz erabilli ditzan; ta ez noski, ez du nahi ta ezin dezake onartu, gaur oraindik gertatzen danez, Konstituzio ta Lege batzuetan alper alperrik adierazita egon ditezenik.

a i t a s a n t u a k

«Prensa periódica»-ren
XV-gn. Kongreso
Internazionalekoeri

Askatasun hau sanoki erabiltzeak komentario asko ekartzen ditu ta pozik dakarkit gogora nola zuen profesio honen deontolojiako kodigo bat jarri nahiz zabiltzaten. Zuen profesioa bezelako bat konplizterakoan, gaur zabal-kunderako dauzkagun bideak edukiaz ta honenbesteko erreztasun ta posibilitadeak herriko pentsa moldeetara heltzeko ezagutuaz, ziurki, ezin liteke suelton ta lijero jokatu. Zuen periodikua dala-ta, artikulua aukeratu behar dituzutenean, garrantzitsua da zeron joera ta nahiak zuzenetik dominatzea: informazio bat, notizi bat, zuek periodikuan darabillkizuten terrenoren gaindi badago, hobe da ixil ixillean uztea, egiazko inportatzitik kanpo ematea baiño. Gaur ifioiz baiño gehiagoko garrantzia kobratu du informazioak: Ezin ditekena da gaur informazioa propaganda bat biurtzeraiñoxe aulduztea; ezta ere gizonaren joera makurrak piztea; ta are gutxiago, kanpafia xixtimatsu baten bidez, irakurle talde batzuk, herri bereko edo estranjeriko beste taldeen aurka muturrez ipintzea. Betebeharreko sendo bat sortu zaigu gaur elkar konprenitzeari buruz saiatu gaitezen, ta denok alegindu gaitezen, bakoitza tokatzen zaion txokoan, gizon guztion famili osoan pakean bizitzeko.

Hori dala-ta, eskubide osoz galdetzen duzuten libertade honek, ez du ifioiz jo behar egiak ta guztion onak —“bien común” deritzanak— dauzkaten deretxoen kontra. Askatasun horrek bere lortubearra baidauka, ta ara: norberaren ta komunidadere osoaren serbizio hobealortzea da”.

Aita

Santuak: